

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2019an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen deialdia jasotzen duen 2019ko martxoaren 12ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 450127

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

2019. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerrientzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen arloak:

1. Kultura sustapena.

– Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi lantegiak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jarduera edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

– Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jarduera guztiak).

Ez dira diruz lagunduko:

– Berriazko jarduerak, herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen dutenak.

– Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

– Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jarduerako hornikuntzarako eta behar bezala justifikatuta badago.

– Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, alde aurretik haren behararen balorazio teknikoa eginda.

– Funtzionamenduak sortutako gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erre-gaia...)

Onuradunak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

Egoitza udalerrian dutela bertan soilik ari diren elkarteak eta kirol klubak, programak edo jarduerak egiten dituztenak.

Egoitza udalerrian ez eduki arren, dela udalerrian bazkide kopuru nabarmena izateagatik dela jardueran udalerriko partaide asko egoteagatik, bertan edo inguruan egingo diren gizarte, kultura edo kirol programei ekiten dieten elkarteak eta kirol klubak.

2. Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dirulaguntza ematea eragiten duten jarduerak egiten dituztenak.

3. Nortasun juridikorik ez eduki arren, udalerrian hainbat kide erroldatuta dituzten pertsona fisikoen taldeak, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin ditzaketenak, hain zuzen ere, udalaren jardunaosatzen duten eta udalerrirako herri eta gizarte interesekotzat jotzen diren proiektuak eta jarduerak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2019ko martxoaren 12an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 6.100,00 euro da: 231.481.000 aplikazioa (erretiratuen elkarteak): 2.500,00 euro; 334.482.000 aplikazioa (kultura dirulaguntzak): 2.000,00 euro; 341.482.002 aplikazioa (kirol jardueretarako dirulaguntzak): 1.600,00 euro.

Eskaerak aurkezteko epea

Aurkezteko epea 2019ko irailaren 6an bukatuko da.

Erdoña, 2019ko apirilaren 12a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO